

danbolin²⁵

2023 urria

278 zk.



danbolin aldizkaria
herritarren
begietatik



675 965 116 iraopottoka@gmail.com



Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org



M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, beheka - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070



erdikalea 3
tel. 943 147 196

Ekain Berri
kafetegia

Ordutegia
Aste barruan 06:30/13:30 16:30/20:30
Asteburutan 06:30/14:30
Arratsaldez itxita
By NADIA
Tlf: 943 536 314
ZESTOA



943 147 657



GARRAIO SISTEMAK
ERREMOLKEEN SALMENTA
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK
KARABANA, AUTOKARABANA eta
FURGONETETARAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta
MANTENTZE LANAK

telef. 943 147 679
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net



Zestoa
AUTOESKOLA

Gesalaga 1 Tel. 943 148 524
20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa_autoeskola@hotmail.com


Tel.: 943 14 73 44



URRIA
1 2 3 4 5
6 7 8 9 10 11 12
13 14 15 16 17 18 19
20 21 22 23 24 25 26
27 28 29 30 31
ABENDUA
1 2 3 4 5 6 7
8 9 10 11 12 13 14
15 16 17 18 19 20 21
22 23 24 25 26 27 28
29 30 31
Egun osoan irekita Mui topaketa 22:00etan Irekita 18:00etatik aurrera Itxia



Erdikalea 5
Telf: 943 14 73 22
20740 Zestoa (Gipuzkoa)



Gesalaga kalea, 22 beheka 20740 ZESTOA
Tel./Fax: 943 897 099 asesoriarin@asesoriarin.com



Olaizola eta Uria kalea - Iraeta
943 147 067

Gesalaga kalea 20
Zestoa 20740



mizuclicinicaidental@gmail.com
ZURINE ECHIBERRIA RENOBLES COLEG. 797
IDOIA ECHIBERRIA RENOBLES COLEG. 868

Telf.: 943 14 78 28



- 943 29 08 99 -

Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa



EGOITZA - RESIDENCIA
Toribio Altzaga 6 - Zestoa
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com



kutxi eta
pentsuak

LAIAK
ZESTOA

www.laiakdenda.com
tfnoa: 943148134

laiaak
Lurraren onena
Zestoaren bihotzean



harresi

Tlf 943 323 894
Gurutzeaga kalea 11-13



Eizagirre
Okindegia

Tel: 943 090341



Zestoa
Kaleokerra, 3
Tel. 943 147 269



Itzulpen eta
argitalpen zerbitzuak, s.l

Itzulpenak baino
askoz gehiago!

Bakun

Narkis Balentziaga, 2
20749 Arroa (Gipuzkoa)

+34 943 148 306
+34 943 897 380

bakun@bakun.eus
www.bakun.eus



UROLA
ITURGINTZA
665 49 07 73

KOIOTE

foru plaza, 4
tel. 943 147 095



Aranburu
Landetxea
eta
jatetxea
943 148 005

BERTIGOA eta Harrotasuna

25 urte. Bi auto istripu; hiru auto. Sei alkate –denak akordatu bazaizkit–. Pare bat galdeketa.

Apustu bat, 50 plaza.

25 urte. Lekeitio, Vancouver, Bilbo... Zestoa ez diren sei bizitoki eta dozena bat etxe.

25 urte harreman bat hasi, finkatu, seme-alabak izan, eta seme-alabak heltzen ikusteko bizialdi bat izan liteke.

25 urtean nik: maiteminak, bikotekideak, hausturak, algarak, orgasmoak, malkoak, terapia saioak. Ezkontza bat.

25 urte kartzelan egin zituen herrikidea.

25 urte beintizinko baino dotoreago azaldu zen lehen azal hartatik: emakume zapatetan sartutako bi besoen erretratua.

25 + 2 Txuloputa Kuadrillako whatsapp taldean.

25 urte eta ia %25 hazi da biztanleria Zestoon. Zenbat jaitsi da euskararen erabilera?

25 urte. 300 hilabete. Dozenaka after-shave poto. 9140 egun. Zenbat zurito Komando Zuritokoe? Mende laurden bat. 25 urte. Atariko honetarako argazkia atera zidana ez zen sortu. Eta **danbolinek** hemen dirau. Asko da hori.

2000 urte hasiera. Karrera amaitzeaz ni. Bilera batera deitu ninduten orduan berria zen kultur etxera. Aldizkaria sortu behar zutela, *earra!* -neurekiko-; ardura hartu nezan nahi zutela, *ostia!* -neurekiko-. "Beldurtu egin zaiguk" esan zuen neska batek. Baina sartu nintzen. Eta inkestak egin nituen, eta entrebistak. Eta publizitatea jarri zezaten dendaz denda ibili nintzen. *¿Finbolín!? ¿¡Qué es eso!?* Esan zidan gizon batek, hura lotsa. Ikaragarri gogorra izan zen urte hura Euskal Herrian. Kartzeletan. Kanean, tabernan, etxean. Ordukoa bai polarizazioa. Udan etorri zen latzena. Joxe Mari Korta hil zuten.

Neure biografian atzera begiratzeak bertigoa eragin dit. **danbolinek**, ordea, harrotasuna damait. Huts egindakoak izan ditu, baina baita azierto galantak ere. Hasieratik lortu zuen erreferente izatea. Eta irekia izan da. Herria trinkotu eta aberastu du. Asko aldatu da dena eta badu lana datorrenera egokitzen. Baldinbaitere, asmatuko ahal dugu!

Zorionak bidea egiten lagundu duzuen guztioi. Urte askoan **danbolin!**

jon artano



DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN
HARTZEN ALDIZKARIAN
ADIERAZITAKO ESANEN ETA
IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitarabazaila: DANBOLIN ZULO
ELKARTEA. KULTUR EGXEA. AXUN
ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOA
(GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

Danbolin: NAIARA EXPOSITO,
AMAIUR ARISTGI, URKO CANSECO,
SARA MATSUTANI, PERU GARCIA, JONE
BERGARA, ICSASO WALIÑO, OHIANA
CALPARSORO ETA OIHANE GOIKOETXEA
Kolaborabazaila/auzenbazaila baldia:
NAGORE GELLERIA, JON ARTANO,
FERNANDO ARZALLUS,
ONINTZA IRURETA, MIREIA ORBEGOZO,
EIDER ARRIZABALAGA, MAIDER ARREGI,
NEREA ODRIOZOLA, ICSASO
ZUBIRIA ETA MIKEL IRURE
Disseinua eta maketabazila:

ENEKO ARISTGI

Inprimabegia: GERTU (OÑATI).

Lege gordailua: SS-1108/2000

ISBN: 1576-9429



ETORRI DA AZPEITIAARRA

Etxean nengoen lasai-lasai, eta zer eta, ustekabea, enbido bat heldu zait Ameriketatik. Gaizka Kortadik en-
gainatu nau, eskerrak gizon jatorra eta lagun bikaina den! Eta, nola ez, oroitzapen asko etorri zaizkit burura!



Burura etorri zaidan lehenengo oroitzapena 2011. urteko fut-
boleko talde zoragarri hura da. Zeinen gazteak ginen eta ze
ondo pasatzen genuen! Kamiseta zuri-beltza jantzi eta Uzta-
pide tabernara joaten ginen ebakia hartzera; gero, Lau Iturri-
ko aldapa jaitsi eta Zubiaurrera. Talde bat eta herri bat, de-
nak batera.

Garai hartan, etxeko partida guztiak larunbatetan, arratsal-
deko hiru eta erdietan, jokatzeko ziren. Taldeko hiru jokalar-
i lehenago joaten ziren futbol zelaia mangera batekin busti eta
karearekin margotzera. Gogoan dut egun batean futbol ze-
laia bustitzen hasi nintzela, eta aurkariak hura ikusita hau
esan zuten: *“Hoy el capitán no juega porque está regando el
campo”*. Orduan, nik eskuak garbitu, ekipazio zuri-beltza
jantzi, eta dana ematera atera nintzen partidura.

Batzuetan ametsak egia bihurtzen dira, eta Zestoan bete zen:
hirugarren mailara igo ginen. Txokoan ere ibiltzen ginen sa-
rritan esku pilotan *Antselmo*, *Kixkurra*, *Ostolaza* eta beste
hainbat aurkarri gogorren aurka. Aurkariak bai, lagun han-
diak ere bai. Zortzi txapel irabazi nituen Txokoko Txapelke-
tan, ohore handi bat zestoar batentzat!

Gaur egun Azpeitian bizi naiz, andre eder eta alaba zoragarri
batekin. Hala ere, ekaina iristen denean, beti galdetzen dut
nork irabazi duen Txokoko Txapelketa. Zergatik ote da? Az-
peitian “zestoarra” deitzen didate, eta Zestoan “etorri dek az-
peitiarra” esaten dute. Nongoa naiz orduan? Nik garbi dau-
kat, eta zuek?

Amaitzeko, nire enbidoa bost edo sei txapel dituen eta orain-
dik gaztea den Adonisi pasatuko diot. Animo, Adonis, besar-
kada handi bat eta ekainean ikusiko gara, txapeldun!

jan ligaga “ipintza”

pintada.

ZATOZ ZESTOAKO ESKOLA KIROLERA! Dagoeneko martxan da Zestoako Eskola Kirola,
baina oraindik haur orok du programan izena emateko aukera. Programaren helburu hezitzaile eta inklusiboaren bi-
dez, haurrek askotariko joko, jolas eta kirolak praktikatzeko dituzte. Finean, helburua hori da: haurren osasun ohiturak,
talde-lana, integrazioa, esfortzua, elkarbizitza, euskaraz gozatzea eta jarduerarekiko zaletasuna sustatzea. Beraz, he-
rritar guztiak gonbidatu nahi ditugu hurrei bizipen aberatsak izatera bultzatzera.

zestoako eskola kirola

EHUN URTE

Ehun urte bete ditu *Amparito*k. Ehun urte Jaume Texidor konpositoreak *Amparito Roca* pasodoblea sortu zuenetik. Auskalo horietatik zenbat daramatzan Zestoako bandaren erreperitorioan. Gure ama 40 urtez egon da erdi kalera begira, udaletxe azpiko azken arkupearen oinetan, bideokamera eskuetan Amparitoaren hasiera grabatzen.

Zestoarrontzat “beti” berezia izan bada ere, bitxia da ikustea nola aldatu den une hori bizitzeko modua. Duela 40 urteko irudietan bandako ki-deez gain dozena bat lagun ageri dira, gehienak Porttu, Txoko edo Uztapide atarian. Egungo euforiatik urrun, baina orduan ere hunkigarria izan ohi zen piezaren lehen konpaseko tronpeten deia.

Ez gara bakarrik, Tarragonako Santa Teclako festetan, *Baixa-da de l'aliga* delakoan, milaka lagunek abesten dute gau guztian zehar etengabe “gure” Amparito. Espainiako Gazte Orkestrak espainiar estatuko antzoki garrantzitsuenetan propina gisa jo ohi du (Beethovenen edo Brahmsen sinfoniak interpretatu ondoren). Batean zein bestean, Espainian, Tarragonan edo Zestean, zer ote du partitura honek hainbeste jenderi barrenak mugiarazteko?

Susmoa dut egun Amparito entzutera zekorketak ikustera baino jende gehiago joaten dela, zekorketak gustatu ez, edo horien aurka dauden asko ere biltzen direla erdi kalera. Pozteko albistea da inondik inora ere! Musika pieza batek pentsaera ezberdineko herrikideak banandu baino, batu dituenaren seinale. Pentsatzen ari naiz, Amparito gabeko zekorketarik ez dudala imajinatzen Zestean... baina zekorketarik gabeko Amparito bai, eta laster (berandu baino lehen) ahaztuko zaigu pasodoble hau “zekorketak iragartzeko” jo ohi zela.

2023ko Zoroperietan, ez zen pilota partidarik izan, baina haiek iragartzeko egin ohi den *Vamos al frontón* kalejira inprobisatua egin zen; eta herritarrak gogoz bildu ziren kolean, musikaren airean, pilota partidarik gabeko jaialdi ederra ospatzeko. “Tradizioak” horrela egokitzen baitira garai berrietara. Azken finean, musika pieza hauen eta beste askoren arrakastaren garaia hor egongo da: herria batzeko, herritarrak elkartzeko eta komunitate sentimendua indartzeko duten gaitasunean. Urte askotarako, Amparito!



KIROLA: OSASUNA ala MODA?

Azken urteotan, kirolaren presentzia gero eta handiagoa da gizartean. *Running* eta *trail running* oso modan daude, eta egia esan, pozgarria da mugimendua eta osasunaren aldeko joerak sustatzea. Ni ere erori naiz moda horretan! Hala ere, moda orok bezala, honek ere badiu bere arriskuak. Ohikoa da prestaketa egokirik gabe erronka handietan sartzea (maratoi bat, adibi-

dez), gorputza mugara eramanez; ondorioz, osasunaren izenean askotan ordaintzen dugun “prezioa” dira lesioak, nekea eta desmotibazioa.

Moda honek fenomeno bat ekarri du berekin:



jarduera fisikoa erregistratzeko, Strava gisako plataformak erabiltzea. Kirola egitean plazera askotan datuek, errendimenduak eta besteen balioespenak ematen digute. Eta orduan galdetzen dut nik: zertarako egiten dugu benetan kirola? Norberaren osasuna edo plazer hutsagatik, ala besteek ikus dezaten? Garrantzitsua da norbere burua gainditzeko eta hobetzeko erronkak jartzea, baina nire ustez, kirola egiteak bere benetako zentzua galtzen du besteen iritzietan oinarritzen dugunean.

Horren harira, honakoa azpimarratu nahiko nuke: indar entrenamenduaren garrantzia. Oraindik ere askotan gutxietsia edo bigarren mailan utzia da, nagusiki, emakumetan eta hirugarren adinean. Aitzitik, egungo ikerketek garbi erakusten dute: indarra lantzeak onura itzelak dakartza adin guztietan, epe laburrean eta luzean, arlo fisikoan, sozialean zein psikologikoan. Esate baterako, eragina du garapenean, jarreran eta koordinazioan hobekuntzak ekartzen ditu (haur eta nerabeetan), lesioen prebentzioa eta errendimendua hobetzen ditu (helduetan), funtzionalak eta autonomoak izaten laguntzen digu (adinekoei)... Indarra entrenatzea ez da errendimendua hobetzea edo pisua altxatzea soilik, entrenamendu mota asko daude, eta indarraren bidez etorkizuneko osasuna da jokoan dagoena, bizitzan funtzionalak izateko ezinbestekoa baita.

Azken batean, kirola ez da distantzia bat egitea soilik, ezta marka pertsonal bat gainditzea ere. Kirolak ez du moda bat izan behar, bizimoduaren parte baizik. Egunen batean kilometro gutxiago egingo ditugu, baina orduan ere egunerokoan mugitu zein funtzionalak izan nahiko dugu, eta indarra lantzeak izango du zeresana horretan. Ez dezagun ahaztu gorputza ez dela makina bat, zaindu beharreko aliatu bat baizik.

irratxe martin aizpurua



Mari Jose Etxeberria, Arantxa Rezabal, Mikel Sasiain eta Ioritz Zunzunegi bildu ditugu mahai-inguruan, *Danbolinen* bulego txikian. Laurak dira aldizkariaren irakurleak. Hedabideaz duten iritzia azaltzeko eskatu die *Danbolinek*, gauza onak eta ez hain onak, betiere mende laurdena bete duen aldizkaria hobetze aldera. Estimuan dutela erakutsi dute.

Badirudi irakurle finak aukeratu ditugula. Gutxi-asko aldizkari osoa irakurtzen dute. Mari Jose da *Danbolin* hartu eta irakurtzen hasten den azkarrena: postontzitik jaso orduko, igogailuan doala, begirada bat ematen dio zein gai dauden ikusteko. Etxera ailegatutakoa Enbidoa eta Inkesta irakurtzeko ohitura dauka: “Gustatzen zaizkit. Inkestan edozein agertu daiteke, eta azkar irakurtzen da. Enbidoa, berriz, badakigu nork erantzun duen, baina hu-

rrengoa nork egingo duen ikustea gustatzen zait”. Ioritzek etxera iritsi ahala ematen dio begiratua. Enbidoarekin eta iritzi-zutabeekin (Bota librea atala) hasten da, horiek zaizkio irakurtzeko errazenak. Denbora daukanean, gehien interesatzen zaizkionak irakurtzen ditu. Mikel Atarikoa ataletik hasten da, aldizkariaren hasieratik, “zer etorriko den esaten duelako”. Behin hasita, nahiko segidan irakurtzen du dena. Lanak pausatuen egiten dituen da Arantxa. Dena irakurtzea gustatzen zaio, baina gauza batzuk beste batzuk baino errazago irakurtzen ditu. Ez da egun batean aldizkaria irenstekoa, astia daukanean, astiro egiten du errepasoa.

Zein da atal izarra?

Ez da erraza erantzuna, bakoitzak bere kuttunak baitaizka. Enbidoa denei gustatzen zaie. Ioritz zer esanik ez, hortik hasten baitu irakurketa. Dirudenez, jakin-mina pizten du atal horrek, zeren hurrengo nork idatziko duen begiratu daiteke artikulua bukaeran, eta bateren batek aitortu du irakurri baino lehen bukaerara jotzen duela hurrengoaren berri jakiteko. Ioritzek tentsio puntua aipa-

tu du: “Zuri tokatu ahal zaizu! Idatzi duena zure ingurukoa baldin bada tentsioan jartzen zara, eta gertukoa ez bada lasaiago zaude. Enbidoak jokoa ematen du”. Mikelek Ioritzi segi dio: “Bai, pilota bata besteari pasatzen...”, eta Arantxak errematea: “Ederra egin didak! Kar kar kar”.

Iritzi-zutabeak ere, Bota librean atala, alegia, denen gustukoak dira, batez ere Ioritzentzat; lehen aipatu dugun moduan. Arantxari gehien kostatzen zaion atala da Bota librean. Ikasketa guztiak gaztelaniaz eginda, euskaraz nekezago irakurtzen du. Arazorik ez daukala dio, baina patxadaz aritzeko beharra edukitzen du. Mari Josek ere gustuko du, iritzi desberdinak jasotzen direlako eta hor idazten dutenek zer esateko daukaten jakin nahi duelako.

Inkestak barre batzuk egiteko aitzakia eman digu. Mikelek dio ez ote den jendea konpromisoz ateratzen atal horretan, Oihane Goikoetxeak (*Danbolineko* langile berrietako bat da eta gurekin egon da berriketan) onartu du jendeak ihes egiten diela galdera egitera gerturatutakoa. Aurpegi erdiekin jolasean aritzen dira batzuk, eta Arantxak aitortu du inkestatuen adinari begiratzen diola. Kuxkuxean aritzeko atala da, nonbait.

Elkarriketek eta erreportajeek ere badute arrakasta. Dena den, atal horietan selektiboagoak dira. Gaiaren arabera, gutxiago edo gehiago gustatzen zaie, eta batzuk errazagoak zaizkien moduan beste batzuk astunagoak egiten zaizkie. Arantxak, adibidez, Aizarnan bizi den Ane Aranburu azpeitiarraren elkarriketa azpimarratu du.

Agendari ere begiratu ematen diote. Mikelen eta Arantxaren ustez, interesgarria da, eta Mari Joseren iritziak, funtsezkoa. Ioritzek nabarmendu du ekitaldi batzuk sartu gabe gelditzen direla, aldizkaria inprentara bidali eta gero prestatzen direlako ekimen batzuk. Papereko hutsunea Interneteko agendak betetzen duela ondorioztatu dute. Danbolin.eus-etik ekarrita argitaratzen diren zazpi-zortzi argazkidun albisteak ere oso gustuko dituzte. Mari Josek bereziki aipatu du atal hori, oso ondo ekarria delakoan, eta azken gertakizunen laburpena egiten duelakoan. Mari Josek eta Ioritzek aldizkarian agertzen diren argazkiak aipatu dituzte. Lehenengoak jaietan-eta egiten den bi orrialdeko argazki-jendea goraipatu du, “horretan asmatzen duzue”, dio. Ioritzi, berriz, pertsonak agertzen diren argazkiek ematen diote gehien atentzioa.

Jakin-minagatik, eta ez esamesaka ibiltzeko

Danbolinek zer ekarpen egiten dien galdetu diegu. Mikelek aipatu du herriaren eta herritarren berri jakiteko balio duela. Denis Ayalari egindako elkarriketa ekarri du gogora; ezagutu bai baina haren bizitzaz ezer jakin ez. Ioritzen ustez, hilabetekariak hainbat jenderi aitortza egiten die, “uste dut elkarriketatuek eskertuko dutela Danbolin haiengana joan izana”. Mikelek gehi-

ATAL BERRIETARAKO PROPOSAMENAK

Asmakizunak: Baina ez edozein modutakoak. Ioritzek proposatzen du herriko kontuez edo Zestoan erabiltzen diren hitzez galdetzea. “Ba al zenekien?” moduko bat. Norberak asmatzeko erraza izan ez eta ondokoei galdetzea eskatzen badu hobe. Mikelek hitzaren esanahia asmatzeko jokoak hartuko lituzke.

Bertsoak: Zaharrak eta berriak, bertso eskolakoena... Bertso zaharren bidez garai bateko kontuak jakingo genituzkeela uste dute.

Galdera motzak: Jardunian atalean, elkarriketatuari erantzun oso motzeko galderak egitea proposatu dute.

Karikaturak: Argazkiak asko estimatzen dituzte, baina Jardunean atalean karikatura bat eskertuko lukete.

Film eta liburu onak: Mari Josek aipatu du euskal zinemak gero eta arrakasta handiagoa daukala baina etxeko baliabideen ondorioz zinemara joateri uzten ari garela. Horregatik, jasoko lituzke pelikula onen erreferentziak, baita liburuena ere.

Mediku aholkuak: Mari Joseren ustez, *Danbolin* oso egokia da osasun fisiko eta mentalekin zerikusia duten hainbat aholku emateko; hain zuzen, jende askok eta adin desberdinetakoek irakurtzen dutelako. Neurri txikiko testu-zatiak proposatzen ditu: erreduak nola zaindu, nola egin suspertze ariketak (herrian desfibriladoreak non dauden gogorarazi), diabetesa, zeliakia, depresioa, dolua... Aholkuez gain, ordea, gustura irakurriko lituzke herritarrek beren osasun arazoez hizketan, uste duelako aldizkarian kontatzeak egoera antzekoan dauden beste herritarrei lagundu diezaikeela. Ez dute zertan gaixotasunak izan, eta adibide moduan jarri du menopausiaz hitz egitea.

**Arantxa rezabalek,
ikasketa guztiak
gaztelaniaz eginda,
euskaraz nekezago
irakurtzen du. Arazorik
ez daukala dio, baina
aldizkaria patxadaz
irakurtzeko beharra
izaten du.**





MIKEL SASIAIN:
“NIK IZAN NAHI DUG
ARANTXAREN BERRI, EDO
JAKIN NAHI DITUT MUSIKA
KONTUAK (IORITZI BEGIRA).
INGURUKOEN BERRI
JAKITEKO *DANBOLIN* EZ
BALEGO, HUTSUNE HANDI
BAT EGONGO LITZATEKE”.



tuak (Ioritzi begira). Inguruko en berri jakiteko *Danbolin* ez balego, hutsune handi bat egongo litzateke. Gaur egun, gainera! Lagunak-eta ez gara lehen bezala juntatzen kalean, nahiz eta Zestoan adin desberdinetako jendea elkartzeko ohitura oraindik badagoen”. Ioritzek aldizkariaren beste funtzio bat gogoratu du: “Baztanen egon naizenean, askotan eramaten nuen aldizkaria, herriarekin konektatzeko modu bat zen; sofán eseri eta *Danbolin* irakurri”. Mikelek amari Zumaira eramaten zion, Iraetakoa zuen-eta.

Mari Josek eta Arantxak euskaraz irakurri ahal izatearen garrantzia azpimarratu dute. Lehenengoak dio euskaraz irakurtzeko ohitura badaukala eta aldizkari osoa euskaraz denez dena irakurtzen saiatzen dela. Arantxak, berriz, ikasteko erabiltzen du; adibidez, euskaraz idazten moldatzen ez denez, irakurtzeak asko laguntzen

▶ tu du herritarrek badaukatela zer kontatua, “gutxien espero duzunak jokorik handiena eman dezake”. Mikelek nonbaiten irakurri edo entzun du jakin-minaren eta kuxkuxean ibiltzearen arteko aldea. Kuxkuxean jardutea omen da pertsona bati mina emateko, edo behintzat deseroso sentiarazteko, intentzioz haren berri ematea eta zabaltzea. *Danboline* ematen duena hortik apartekoa dela uste du Mikelek: “Nik izan nahi dut Arantxaren berri, edo jakin nahi ditut musika kon-

dio idazmena hobetzen. Mikel ere eskolan gaztelaniaz jardundakoa da, eta beraz, euskaraz irakurtzen saiatzen da, “konpromiso kontua” dela dio. *Berria* egunkariaren irakurlea da, eta, jakina, baita *Danbolin*en irakurlea ere. Ioritzek ez dauka euskaraz irakurtzeko arazorik, hizkuntza horretan egin baita ikasketak. Dena den, esan du zenbait iritzizutabe irakurtzeko konplexuak direla. Aipatu du bere gurasoek ez daukatela euskaraz irakurtzeko erraztasunik eta gertatu zaiola berak idatzitako zutabea azaltzeko eskatzea. Bere gurasoen moduan gaztelaniaz irakurtzen ohituta daudenentzat *Danbolin* euskarazko irakurketa bakarra dela azpimarratu du.

Badago zer hobetu

Estimatzen dena hobetzeko, kritika ere egin behar da. Horretan hasi gara. Agendarena aipatu dugu, paperekoak ez ditu ekitaldi guztiak biltzen, danbolin.eus-era jo behar da informazio osoa eskuratzeko.

Kale eta bale atalaren egitekoaz hasi dira hizketan. Ez dute bat egin iritzietan. Baten ustez, kale eta bale sinpleegiak ateratzen dira; beste baten ustez, argitaratu beharragatik aterako dira sinpleak; hirugarren baten iritziz, ordea, herrian kale asko dago. Beste kontu bat da aldizkarian kaleak argitaratzeak ondorioak baduen, alegia, dagokionak mezua jasotzen duen.

Sinaduretan agertzen den letra tipoak ere zeresana eman du.

Arantxari gertatzen zaio artikulua zeinek idatzi dituen ez jakitea, letra irakurgaitza delako.

Arantxak adinaren kontua atera du mahai gainera, hau da, gazteak gehiago azaltzen direla aldizkarian. Ulertu diogunez, bai protagonista moduan, baita idazten ere. "Agian adinekoek gutxiago irakurtzen dutelako *Danbolin*?" Mikelek eta Ioritzek adinekoek egindako elkarrizketa gehiago ateratzearen alde egin dute, ez dakizkigun gauzak kontatu ditzaketelako, garai batekoak, bizitzeko modu bati buruzkoak, lanbide zaharren inguruko kontuak... Ioritzen ustez, elkarrizketek kontu horiek sakonago eta patxadatsuago biltzeko aukera ematen dute. Mari Josek arrazoia eman dio Arantxari, eta fokua idazten dutenen adinean jarri du: "57 urtetik beharagoak euskaraz idazten lotsatzen badira, adin horretatik gorakoak, euskaraz idazten ohituta egon gabe... Dena den, berak dio gustura irakurriko lituzkeela adin batekoek idatzitako kontakizunak. Proposatatu du euskaraz idazteko zailtasunak dituzten helduei erredakzioko kideek laguntzea.

Azken kritika Ioritzek egin du. Ez omen zen bere inpresioa, baina lagun batzuek esaten omen zioten jende bera agertzen zela behin baino gehiagotan aldizkarian, batez ere iritzi zutabeetan. Uste du jendea errepikatzeak atzerakoa eman dezakeela. Gaur egun, barietate handiagoa dagoela iruditzen zaio.

IA LANIK GABE UTZI DITUGU OIHANA ETA OIHANE

Mahai-inguruaren bukaera aldera, artikulua idatzi duen kazetariak ariketa bat egitea proposatu die solaskideei. Denon artean, azaroko zenbakirako gaiak eta sinadurak proposatuko dizkiogu *Danbolin*eko erredakzioari. Ez ahaztu Oihane Goikoetxea, *Danbolin*en lanean hasi berria, gurekin batera dagoela mahaiaren bueltan. Arantxak azkar asko ulertu du zer egitera goazen. Aldamenean dauka Oihane eta keinu egin dio: "Zuri lana kentzen ari gara!"

Urriko Enbidoa nork egin duen begiratu dugu: Jon Ipintza (Lizaso). Ioritzek dio futbolarekin lotutako norbait izan behar duela. Mikeli Antxelmo Astiazaran etorri zaio burura, hura izan baitzen Jon Ipintzaren garaian Gipuzkoan oso txukun aritu zen futbol taldearen entrenatzailea. Alkorta bizkiak ere gogoan ditu, Ipintzarekin batera jokatzen baitzuten.

Enbidoa prest. Bi iritzi-zutabeak orain. Oihane gogorarazi digu beti emakumezko batek eta gizonezko batek idazten dutela. Nik, berriz, zirikatu ditut pertsona helduak aukeratu ditzaten, berriketaldian aipatu dutelako iritzi-zutabeetan apenas idazten dutela herritar helduek.

Kazetariak Arantxa bera animatu nahi izan du, eta berak ezetz. Ioritzek: "Zergatik ez?", eta Arantxak: "Saltsa denetan nago!". Hain zuzen, horregatik izango litzateke zutabegile interesgarria. Rita Zabala izena atera da, eta denei ondo iruditu zaie. Arantxak Begoña Unanue aipatu du, emakumezko irakasleen artean izenak topatu nahian. Ioritzi, gizonezkoetan, Guillermo Egiguren etorri zaio burura: "Horrek zer kontatua badaukala iruditzen zait", eta Mikelek aldamenetik: "Guillermo entziklopedia bat duk! Oso interesgarria. Txaro [Azpillaga, Guillermoren emaztea] bera ere izan daiteke zutaberako. Guillermo, igual, zutaberako baino gehiago, elkarrizketa egiteko aukeratu dezakegu". Eta erabaki dugunean Rita eta Guillermo azaroko iritzi-zutabeetarako proposatzea... baten batek: "Ezzzz, Guillermo, elkarrizketa!". Eta denak barrez hasi gara.

Zutabeak eta elkarrizketa erdi lotuta. Oihane oharrak hartzen, 'erredakzioko kide berriei' erne entzuten. Orain erreportajerako gaia aukeratu behar da. Azaroa, azaroa... ehiza! bota du Mikelek. Arantxak muturtxoa jarri dio: "Ehizarik ez da egin behar, ordea!". Mikel ez da oso ondo gogoratzen, baina aipatu du zozketak egiten direla edo zirela Zestoan eta agian hari horri tiraka... Kazetariak ehizaren aldeko eta kontrako argudioekin egindako erreportajea proposatu du, baina solaskideek ez dute amua irentsi. Eta berriz ere Mikel piztu da: "Santa Zeziliako kinto bazkariak!". Gaia proposatzeaz gain, artikulurako elementuak harilkatzen hasi dira Mikel, Ioritz eta Arantxa: nola sortu da eta nola hartu du halako indarra egun horrek?; badira nahita egun horretan egiten ez duten kuadrillak; egun horretan ez dira denak kabitzen Zestoan; kinto-bazkariak zenbat urtetik aurrera egiten dira gaur egun, eta zenbat urterekin hasi beharko lirateke? Ioritzi antzeman diogu gustuko duela egun hori: "Gu agendan egun hori parrandarako jartzen hasiak gara. Egundak horri forma eman behar zaio, egitarau bat antolatu...".

Eta bukatutzat eman dugu erredakzio bilera inprobisatua. Oihane jaso ditu solaskideen esanak; beste gauza bat da aintzat hartuko dituen. Laster ikusiko dugu.

Marije eta Marijo Etxaide

MARIJO:
“EZ AL DA
terroristagoa
herritar bat
hiltzeko bere
baliabide guztiak
erabiltzen dituen
estatu bat?”



LAU URTE ETA ERDIKO TARTEAN JAIO ZIREN ETXAIDE FAMILIAKO LAU NEBA-ARREBAK. XABIN ZEN ZAHARRENA, ETA AZKENAK JAIO ZIREN BI NESKAIAK, MARIJE (1960) ETA MARIJO (1959). BI AHIZPEK ONDO GOGOAN DUTE, DUELA 40 URTE, EUREN BIZITZAK BETIKO MARKATU ZITUEN GERTAKARI HURA. XABIN, BESTE HIRU LAGUN ERREFUXIATUREKIN BATERA, BAIONAKO MONBAR HOTELEKO TABERNAN ZEGOEN, LUCIEN MATTEI ETA PIERRE FRIGULIE GALEK KONTRATATUTAKO MERTZENARIOAK BERTARA SARTU ETA TIROKA HIL ZITUZTENEAN.



1985eko irailaren 25a. Memorian, bizitzan... iltzatuta gelditu zaizuen data, ezta?

Marije: Etxean geunden, 21:00ak aldera izango ziren. Dei baten bidez izan genuen atentatuaren berri, Xabin oraindik bizirik zegoela baina, berekin zeuden beste hiruak hil zirela jakin genuen. Aita eta Jose Ramon anaia berehala abiatu ziren Baionara, baina hara iritsi aurretik hil zen. Garai hartan apenas zegoen telefonorik, eta gure artean kontaktatzea ere zaila izan zen. Javier apaizaren bidez kontaktatu genuen elkarrekin.

Gogoan dut behin Hendaian arratsalde pasa egin genuela Xabinekin. Agurtzean bi egun barru zerbait larria jakingo zela esan zigun. Handik gutxira, jakin zen Joxi Zabala eta Joxe-an Lasa desagertuta zeudela. Beldurrak inbaditu gintuen. Gero etorri zen Monbarreko atentatua.

Marijo: Xabinekin batera hil zuten baten bikoteak esan zigun Xabinek izugarritzko zorte txarra izan zuela, kalera sekula irteten ez zelako. Egun hartan kalera irten zen, ordea. Hori entzutea ere oso mingarria izan zen guretzat.

Dagoeneko 40 urte pasa dira. Denborak dena sendatzen duela diote, hala uste duzue?

Marije: Ez, gertatutakoa ez da sendatzen. Egia da gauza batzuk lausotzen dituela, baina beste batzuk betiko geratzen dira. Min horrekin bizitzen ikasi dugu, baina urteurrena iristen den bakoitzean oroitzapen guztiak berriro pizten dira. Aurtengoa bereziki gogorra izan da.



Xabin Etxaideren familia Baionan egindako 40. urteurreneko ekitaldian

Azken asteak mugituak izan direla pentsatzen dut.

Marijo: Hala izan dira, bai. Aurten emozio asko berriz bizitu ditugu. Aurtengoa bereziki gogorra izan da, guztia berriro azaleratu duelako. 40 urte hauetan isiltasuna eta ahanztura izan dira nagusi, instituzioen zein komunikabideen aldetik.

40 urteren ondoren, ordea, Gogorak (Memoria, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen Institu-

tua) GALEn inguruko lana egitea erabaki du, Monbarreko atentatua ardatz hartuta. GALEk egindako ekintzarik latzena eta ezagunena izan baitzen hura. Horrek piztutako interesak eta arretak eraginda, komunikabideek eta jende askoren begiradak jarri dira berriz gure gainean azken hilabeteetan.

Baionan izan da 40. urteurreneko ekitaldi nagusia eta bertan izan zineten familia osoa. Nola izan zen eguna?

Marije: Egun benetan hunkigarria eta ederra izan zen. Guztia primeran antolatuta zegoen, xehetasun guztiekin zainduta. Harrituta gelditu nintzen.

Marijo: Goizean Euskadi Irratian izan ginen, Monbarreko atentatuari buruzko saio berezian, atentatuan hil ziren beste hiru gazteen familiekin batera. Ondoren, lore-eskaintza egin genuen Monbar hotelaren aurrean. Lau gazteen senideok hainbat erakundetako ordezkariak gonbidatu genituen parte hartzera, eta bertan izan ziren baita lau herrietako alkateak ere. Ekitaldia xumea eta hurbila izan zen, giro nahiko intimoan egindakoa.

Familia guztiok elkarrekin bazkaldu genuen gero, eta arratsaldean, zazpitan, ekitaldi handiago eta hunkigarria egin zen. Jendetza bildu zen, hemendik eta handik etorrita. Musika, kantak, irakurketa bereziak eta memoria izan ziren protagonista.

Amak adin handia du, baina hala ere, hantxe.

Marije: Hasiera batean ezezkoa eman zuen. Familia guztiak elkarrekin joatea erabaki genuela ikusita, animatu zen. Azkenean, oso gustura egon zen, eta oso berezia izan zen berarentzat ere.

Aurretik ere izan duzue harremana Xabinekin batera hil zituzten Jose Mari Etxaniz "Potros", Inaxio Asteasuinzarra "Beltza" eta Agustín Irazustabarrena "Legra"-ren familiakoekin?

Marije: Bai, nahiz eta denbora asko igaro den haiekin elkartu gabe. Azkenean, halako topaketak doluaren parte ere badira.

Marijo: Harremanetan egon izan gara urte hauetan guztietan. Lau hamarkadetan gauza asko gertatu dira: epaiketak, abokatuekin bilerak, tramite ugari... eta horietan guztietan familiok elkarrekin ibili gara. Haatik, oraingo hau bestelakoa izan da, bereziagoa edo. Hitz eman dugu berriro elkartuko garela bazkari batean.

Beti esan izan duzue biktima guztiak ez direla maila berean tratatu gurean.

Marijo: Gu beti izan gara bigarren mailakoak, argi eta garbi. Familiakoei beti tratatu gaituzte terroristak bagina bezala, eta hor dago diferentzia. Ez dugu izan prentsarik, ez instituzioen laguntzarik, ezta harremanik ere. Guregana ez da inor hurbildu urte hauetan guztietan. Horregatik diot bigarren mailako biktimatzat hartu gaituztela.

Ez al da terroristagoa herritar bat hiltzeko bere baliabide guztiak erabiltzen dituen estatu bat? Eta hori guztia bideratzen duen alderdi politiko bat, ez al da, are terroristagoa? Tamalez, ordea, hori inoiz ez da aintzakotzat hartu.

Hil zutenean ere, ez zenuten behar bezala agurtu ahal izan. Herria poliziaz beteta, sarrerak itxita eta herritarrak ezin sartu hilerria.

Marijo: Gorpua jaioterrira ekartzeko lau egun igaro ziren, oso luzea izan zen. Baionako muga Guardia Zibilek jaso zuten gorpua, eta herrira iritsi ginenerako, Zestoa erabat poliziaz inguratutako zegoen. Tiro hotsak ere entzun zirela esango nuke, baina ez nago guztiz ziur.

Marije: Egun hartan shockean geunden denok. Jende asko zegoen bidean zain, baina Guardia Zibilek ez zuten uzten herrira sartzen; kontrol ugari zeuden. Herrian amorru eta haserre handia sumatzen zen.

MARIJE: “EZ ZIGUTEN UTZI XABIN BEHAR BEZALA AGURTZEN”

Hilkutxa Zestoako kaleetatik igaro zuten lagunek, eta gure etxera ere ekarri zuten, hala nahi izan zuten amak eta aitak. Kanposantuko unea ere izugarri gogorra izan zen. Guardia Zibilek ez zioten inori sartzen uzten, eta Xabinen lagunek ezin izan zuten agurtu. Ez ziguten utzi Xabin behar bezala agurtzen.

Aipatu duzuen bezala aurretik GALen biktimei barkamena eskatu die Gogora-k, nola hartu zenuten notizia?

Marije: Ondo hartu genuen. Uste dut pauso garrantzitsua dela, baina egia da oraingo egoera ikusita, askoz errazagoa dela barkamena eskatzea, lehen egitea baino.

Ongi hartu genuen. Urrats garrantzitsua iruditzen zait. Hala eta guztiz, gaur eguneko testuinguruan, barkamena eskatzea askoz errazagoa da lehen egitea baino.

Marijo: Barkamena eskatu digute 40 urtean ezer egin ez dutelako, eta hori bera barkamen mota bat da; baina ez dugu sentitu damutasunetik egindako barkamena izan denik. Egia da aurre-rapauso esanguratsua dela, eta gure egoeran dauden familia askorentzat bide berri bat ireki duela.

Uda aurretik hasi ginen Gogora Institutuarekin bilerak egiten, eta lehendakariarekin izandako bileretan iruditu zitzaigun bere borondatea zintzoa zela. Era berean, María Jesús San José Lópezek, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Giza Eskubideetako sailburuak, pertsonalki adierazi zigun bihotzez sentitzen zuela, eta hau hasiera bat besterik ez zela. Ikusten zen sentimenduz hitz egiten zuela.

Nik benetan sinistuko dut barkamena eskatu ditutela, egunen batean gertatutakoa zergatik izan zen argitzen denean.



Erakusketa ere antolatu dute Xabin eta kideen omenez; pentsatzen dut zuekin harremanetan izan direla.

Marije: Donostian dago erakusketa, eta aurkezpen egunean bertan izan ginen. Aretoa alderdi politiko guztietako ordezkariak beteta zegoen.

Marijo: Gogorarekin bilerak egiten hasi ginenean proposatu ziguten erakusketa hau. Zalantzak izan genituen, baina azkenean aurrera egitea erabaki genuen. Panelez osatutako erakusketa da, eta Monbarreko atentatuaren xehetasunak zein GALen terrorismoaren ibilbidea azaltzen ditu.

Nik proposatu nien erakusketa hau herriz herriz zabaltzea. Ederra litzateke Zestoara ekartzea.

Eta hiltzaileak? Zer izan da haietaz?

Marijo: Dirudienez, bi mertzenario izan ziren.

Hauen juizioak bai izan ditugu. Kondena luzeak ezarri zizkieten, baina alferrik. Guretzat, hori ez da inoiz izan garrantzitsua.

Pentsatzen dut gaur egun kalean izango direla, ez dakit. Epaiketan aitortu zuten Espainiako zerbitzu sekretuek kontratatuta jardun zutela, eta horrek, tamalez, kondenak arindu zizkien.

Marije: Etxean Xabini buruz hitz egiten dugu sarri, baina ez hiltzaileei buruz. Ez da gure artean landu izan dugun gaia, ezta etxean ere; ez dugu horretan galdu gure indarra.

Hiltzaileen edo arduradunen zigorrak goxatzen du mina?

Marije: Mertzenario batzuk izan ziren, ordaindutakoak. Beraien zigorrak ez du gure mina baretzen. Horiek diruagatik egin zuten eta ez beraien kontra zerbait pertsonala izateagatik.

Etxean Xabini buruz sarri hitz egiten duzuela diozue. Zuenean bi belaunaldi berri etorri dira Xabin hil ondoren, nola kontatzen da familian horrelako gertakari bat?

Marije: Betidanik, erabateko normaltasunez kontatu izan diegu seme-alabei gertatutakoa. Orain jaiotako txikienek ere badakite guztia; monolitora joaten dira, kanposantura ere bai... Gogoratzen dut biloba batek, zortzi urte zituela, esan zidala: “Niri azaldu egin behar didazue zer gertatu zen”. Eta hala egin genuen. Orain ere, Baionako ekitaldian gurekin izan dira. Etxean beti normaltasun osoz jardun dugu.

Herrian ere urtero-urtero egiten zaio omenalditxo.

Marije: Asko eskertzen dugu jendeak urterik urtera akordatzea, lagunak eta herritarrak urtero bertaratzea.

Marijo: Gure amarentzat, adibidez, une gazi-gozoa izaten da. Beti daude urduritasuna eta emozioa, oroitzapen guztiak berriro pizten direlako, baina gustura bizi du. Urtero-urtero denak Xabinen eta gertatutakoaren baitan biltzea oso polita da.

40 urteren ondoren zer da eskatzen duzuen, zer faltako litzateke?

Marijo: Lau hilketa horien benetako erantzulea zein den jakitea falta da, eta hori publikoki aitortzea. Norbaitek, behingoz, hori esan eta bere gain hartu beharko luke. Gure mina hor dago, eta bizitzen ikasi dugu harekin, baina oraindik falta da egia osoa jakitea.

Guk jarritako hazi horrek jarraipena izan behar du: ahaztuta dauden edo inoiz gogoratu ez diren familia guztien memoria bizirik mantentzea. Memoria egitea funtsezkoa da, baina egunen batean agindu hura eman zuenaren izena publikoki ezagutaraztea litzateke benetako aitortpena.

ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak

ELORZA
janaridenda
943 147 660

ARRAINDEGIA
KONTXI
ZESTOA 943 148 247
AZPEITIA 943 811 946

miantxa
denda
Tlf 943 147 015



EROSKI city
zurekin
943 062 861

UZKUDUN
harategia
Erdikalea, 5
Tel. 943 147 023
ZESTOA

Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110
mairi
LOTTERIA
ESTANKOA

LOTXOLO
Tel. 943 147 133

Izarraitz
Kudeaketa informatikoa

Etixerako osagarriak

ONK
943 147 081-647 683 643

UGARTE
burdindegia s.l.
943 147 154

Arropa eta oinetakoak

IRAOLA
ZAPATEGIA
617 269 408

lili 943 148 061

Edertasuna eta ongizatea

beatriz izeta
943 148 322

KERALA
ongizate txokoa
679 885 173

S
ESTILISTAK
680 802 777

ZESTOA
ZURETZAT

Euskadi, azalana, bien común
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

ZESTOAKO UDALA

Hotz garaian gure haurrek **ePELLan** nahi dute

Horretarako helduen parte-hartzea behar da.

141

Herriko haur
elkarrizketatu

%53

Joango direla
erantzun dute

%30

Agian joango
direla erantzun dute

%13

Ez dute joateko
asmorik adierazi

%4

Inkesta ez
du erantzun

EMAN
IZENA



 Hamaika **UDABERRI** eta gero
AZKEN LORALDIA iritsi da
zeinen  **EDERRA** izan den
bide hau **ZUEKIN BATERA** egitea
ESKERRIK ASKO



ENDOIAKO BARRENSOROTIK ITSASORA

Hamalau urtez han eta hemen arraunean ibili ondoren, 2018an arraunari agur esatea erabaki zuen Iñaki Elorzak (1979), Endoiako Barrensorto baserrikoak. Sei urteko geldialdiaren ostean, aurtentzuli da uretara, Orioko taldearekin. Ametsetako itzulera izan du Elorzak: Eusko Label Liga, Kontxako Bandera, eta baita Gipuzkoako, Euskadiko zein Espainiako txapelketak ere irabazi dituzte.



ITSASOAK HARRAPATU ZUEN

25 urterekin ekin zion Elorzak arraunari, kirol honetaz “arrastorik” ere jakin gabe. Zumaiako Telmo Deunen hasi zen, eta gorengo mailan egin zuen lehen urtean, Kontxara sailkatu ziren azken aldiz. Bost denboraldi egin zituen han, eta ondoren, Santurtzikiko Itsasoko Ama taldean beste lau. Alaba jaio zenean, etxera gerturatzeko garaia zela erabaki zuen. Talde ugari deika bazituen ere, Orio bihurtu zen bere ibilbidearen hurrengo geltokia.

Hasieran bere burua probatzeko hasi zen Elorza arraunean, baina azkenean “itsasoarekin izugarritzko lotura” hartu zuela aitortzen du. Errioa, ordea, ez omen zaio batere gustatzen, “itsasoa bai, hori asko gustatzen zait. Moldarazi egiten zaitu, ez da dena tira eta kito!”.

Eguneroko erritmoa gogorra dela dio, bereziki familiarentzat, “ordu asko dira etxetik kanpo”.

PAROIA TARTEKO

Orion bost denboraldi zeramatzan endoiarrak, emazteari minbizia diagnostikatu ziotenean. 2018a zen eta bere azken denboraldia izan zen ordukoa. “Garai latzak” bizi zituen, bai etxean, baita arraunean ere. Halere, urte hartan Orion irabazitako estropada bere ibilbideko unerik bereziena izateagatik gogoratzen du. “Nire amorru guztia atera nuen, eta estropadan irabazitako txapela niri eman zidaten, bazekitelako momentu gogorak zirela niretzat.



Emaztea txapel hura jantzita ageri den argazkia da daukadan bereziena”.

Arrauna utzi ondoren, talde askok deitu zioten berriro, baina emaztea zen bere lehentasuna. 2022an zendu zen, eta endoiarrak harrotasunez eta eskertuta gogoratzen du 2018an hartutako erabakia.

BIGARREN OLATUA

Urteek aurrera egin ahala, Elorzak arraunera itzultzeko adinik ez zuela uste zuen, harik eta Iker Zabalaren, Orioko entrenatzailearen, deia jaso zuen arte. Zabalak itzulera itxura onez saldu zion, eta endoiarrak dioenez, “konbentzitzeko doteak ditu kabroiak!”. Azken trena izango zela pentsatu zuen, eta ez zuen pasatzen utzi.

Itzulera ezin hobea izan du, gainera, nagusi izan baita San Nicolas ontzia. “Sekula horrelako talderik ez dut ikusi; familia bat osatu dugu” dio. Eta hori, itsasoa ere, nabaritu da.

Denboraldi hau izan da gehien gozatu duena. Esperientziari esker, presioa beste modu batean bizitzen ikasi du, “orain arrauna lasaia bizi dut”. Egunerokotasunaz disfrutatu du eta hori ingurukoek ere nabaritu dute; “jo, Elorza, izugarri disfrutatzen ikuste haut”, esan omen zion Zabalak. Kontxako Banderaren astean ere taldeko gazteek astea lorik egin gabe pasatu omen zuten; berak, ordea, aste osoan ederki egin zuela lo aitortu du barrez.

ETORKIZUNA, AIREAN

Etorkizunaz galdetuta barreak irteten dio. “Urte honetan hainbeste disfrutatu ondoren, beste urte batez ez jarraitzeak pena ematen dit”. Gai hau biraka dabilkio buruan eta gogorik ez omen zaio falta. Hala ere, badaki halako moduan uztea ere “edozein arraunlariren ametsa dela”. Oraindik ez du erabakia hartu: “Nire etorkizuna airean dago, ikusiko da...”.

oihane goikoetxea



EUSKARAREN ARNASGUNEAK AZTERGAI MADDI DORRONSORO ANTROPOLOGOAREN IKERKETAN

Zer da euskaldun batentzat arnasmune batean bizitzea? Eta nola bizi dute euskara euren herrietako egunerokoan? Galdera horiek hartu ditu abiapuntu Maddi Dorronsoro Olamusi antropologoak (European Center for Minority Issues-eko ikerlaria) egindako ikerketan. Segura, Aizarnazabal eta Zestoako euskaldunei elkarriketak eginda, euren ahotsak bildu ditu, eta hilaren 21ean aurkeztu zituen emaitzak Portalen. Ikerlariak azpimarratu zuen ikerketaren berezitasuna euskararen arnasmuneetan bizi diren pertsonen bizipenak entzutea zela.



ZESTOA ETA UREPELE MUSIKAREN BIDEZ ELKARTU ZIREN HILAREN 18AN

AUrriaren 18an, Urepelen ospatutako musika jaialdian hainbat zestoar izan ziren, bai ikusle gisa, baita parte hartzaile modura ere. Dozenaka herritar joan ziren kontzertuez gozatzen, eta herriko Lin Ton Taun taldeak jaialdiko agertokian jotzeko aukera izan zuen. Haiekin batera aritu ziren Basapiztiak, Gatibu, Punttu Kakotx eta Triki-zio taldeak ere. Hainbat herritarrek Zestoako Udalak jarritako autobus zerbitzua erabili zuten Urepelera joan-etorria egiteko.

Zestoa eta Urepele senidetu zirenetik bi urte igaro dira jada, eta ordutik ekimen ugari antolatu dituzte bi herrien arteko lotura sendotzeko.



ZESTOAKO UDALAK HAPO BERRIARI HASIERAKO ONESPENA EMAN DIO

Zestoako Udalak aho batez onartu du Hiri Antolamenduko Plan Orokorren behin-behineko dokumentua, eta jendaurrean jarriko du hiru hilabetez, herritarrek aukera izan dezaten alegazioak egiteko. Lehendik okupatuta zeuden lurak erabiltzen segitzea izan da hirigintza plana diseinatzeko udalak lehenetsi duen irizpidea. Besteak beste, HAPOak 416 etxebizitza berri aurreikusten ditu herrigunean eta auzoetan. Etxebizitza turistikoak mugatuko dira, eta estazio zaharra eta ingurua gunerik berde bihurtzeko asmoa jasotzen du.



GARIKOITZ MENDIZABALEK KONTZERTUAK ESKAINI DITU RENON ETA MONTREALAN

Garikoitz Mendizabal txistulariak bi emanaldi saio eskaini ditu Ameriketako iparraldean. Emanaldiak aretoak lepo bete dituzte, eta Mendizabalek txistua nazioarteko agertokieta aurkezten jarraitu du.

Lehenik, Renoko Unibertsitatean aritu da Josu Okiñena piano-jotzailearekin batera, *Iragana betikotzen* diskoaren aurkezpenean.

Ondoren, Montrealen (Quebec), Orchestra Filarmonikoarekin bakarlarik moduan parte hartu du, Alexandre Da Costa zuzendariaren gidaritzapean. Bi kontzertuetan euskal musikagileen lanak izan dira programan: Jesús Guridi, Eduardo Moreno eta Maurice Ravel.



ALAITZ EGAÑA: "ESKOLA KIROLAREN BIDEZ, HAURRAK ERDIGUNEAN JARTZEN DIRA, ETA BEREN INTERES ETA GOZAMENA LEHENESTEN DIRA"

Ikasturte berriarekin batera, Eskola Kirolari ere eman zaio hasiera Zestoan. Urte osoko egutegia eta jarduerak prest daude jada, eta haurrek urriko lehen asteetan izan dute lehen ekintzak bizitzeko aukera. Parte-hartzearen garrantziaz, haurrei ekartzen dizkien onurez eta Zestoako programaren xehetasunez aritu gara Alaitz Egaña Zestoako Jarduera Fisiko eta Kirol teknikariarekin. [...]

Zergatik da garrantzitsua Eskola Kirolean parte hartzea?

Eskola Kirolean askotariko joko, jolas eta kirolak egiten dituzte, eta haurrek jarduera horietako bakoitza probatzeko aukera dute. Finean, helburua hori da: haurrek, nagusi diren futbola, saskibaloia eta eskubaloiaz gain, jarduera fisiko eta kirol ezberdinak probatzea eta, balioetan heziz, horietan gozatzea.

[Irakurri elkarrizketa osorik gure webgunean]



GIRO EZIN HOBEAN OSPATU ZUTEN TXIKITASUNEAN HANDI EGUNA ARROABEAN

Primerako giroan ospatu zuten urriaren 11n Arroabeko auzotarrek Txikitasunean Haundi Eguna. Egun osoko egitarau zabalez gozatu zuten, haur zein helduek parte hartzeko ekintzekin. Goizean Txepetxa, triki-poteoa eta herri bazkaria izan ziren nagusi, eta tarte bat ere hartu zuten Palestinari babesa adierazteko.

Arratsaldean, plaza jendez gainezka bete zen txinga erronka ikusteko. Duela 40 urte Itziarko Agustin Uranga "Billabier"-ek ezarritako marka hausten saiatu ziren lau kirolari, eta Andoni Zubiaurre "Gorixo"-k lortu zuen hori: 102 plaza egin zituen, "Billabier"-ek baino 27 gehiago.

Mugi Panderoa erromeria taldearen emanaldiarekin jarraitu zuten festak, eta gaua DJ Indate eta DJ Saizar-ek girotu zuten.



PALESTINAREN ALDEKO ELKARRETARATZE JENDETSUAK EGIN DIRA

Talde desberdinek hainbat deialdi egin dituzte herrian, Israel Palestinan egiten ari den genozidioa salatze eta palestinar herriari babesa adierazteko. Dei horiekin bat eginez, elkarretaratze jendetsuak izan dira bai Zestoako plazan, bai Arroabean ere. Deialdiak Palestinarekin Elkartasuna, Zestoako Mugimendu Feminista eta Euskal Herriko gehiengo sindikatuek egin dituzte.






Ez dakit zergatik egiten den ordu aldaketa, zein den arrazoia. Energia aurrezteko dela esaten dute, baina hala ere, lehenago piztu behar izaten ditugu argiak: goizean ez bada, arratsaldean. Ni oraingo ordutegia-ekin gustura nago, udakoarekin.

cristina salegi
63 urte



Bai, alde nago. Nik urte osoan udako ordutegia mantenduko nuke, aldaketarik egin gabe. Argitasun gehiago izateak pozasuna ematen du. Gazteagoak ginenean, iluna egonda ere bizikletan ibiltzera joaten ginen edo denbora aprobe-txatzen genuen. Orain, ordea, adinak aurrera egin ahala, ezin ditugu ilunpeko ordu horiek horrenbeste aprobe-txatu.

jexux goikoetxea
87 urte




Nik ez nuke ordu aldaketa kenduko. Neguan, goiz iluntzeak nire eginbe-harretan gehiago zentratzen laguntzen dit, adibidez ikasketetan. Udan, berriz, ordu gehi-agoz argitasuna ego-tea ere ondo etor-tzen da, eguraldi hobea egiten due-nez, eguna gehiago aprobe-txatu daite-keelako. Hala ere, bat aukeratu be-harko banu, udako ordutegia hautatu-ko nuke..

enetz izeta
23 urte



Udako ordutegiare-kin geldituko nin-tzateke urte osoan. Seietan iluntzeak tristura ematen du. Goiz ilunduta, argi-tasunez egin dai-tezkeen gauza asko ezin dira egin, eta, ondorioz, gauza gutxiago egiteko aukera izaten dugu.

ander urbieta
39 urte



(Erantzuleak guztira: 104)



- alde nago, udako ordutegia mantenduz
- alde nago, neguko ordutegia mantenduz
- ez zait axola
- aurka nago



Herriko hainbat banku oso egoera txarrean daude



Arroabeen igogailua egiteko lanak hasi dituzte



FERREGI
BERRIKUNTZAK

ELEKTRIZITATEA · ITURGINTZA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
AEROTERMIA · GASA
BEROKUNTZA

Jagoba Otaegi 695 721 015 Isidro Fernandez 690 108 996 Joan Fernandez 667 537 892

URRIA

31 OSTIRALA
Arimen Gaua Arroabea. 17:00 Txepetxa. 18:00 Bizkotxoentrega elkargunean. 18:15 Ibilaldia antortzekin. Amaieran, Arimen Gaueko dantza, frontoian. 18:45 Bizkotxo lehiaketa, txokolatada eta photocall-a. 19:15 Piñata Txomin tabernaren eskutik. * Gau Beltza Zestoa. 17:00-18:00 Barbantxo Gau Beltzeko eskulanak (LH1 eta LH2). 17:00 Kiroldegiko aterpean aurpegi margoketa. 18:30 Hilerritik kalejira isila kandeledin. Bideo emanaldia, abestiak... udaletxe azpian. Ondoren, gaztaina erreka plazan. * Miniboy taldearen kontzertua Portalen, 20:00etan.

AZAROA

01 LARUNBATA
Urola Erdiko GKSk antolatuta, Palestinar erresistentziaren aldeko mendi erronka.

01 LARUNBATA
Puzgarriak Iraetan.

06 OSTEGUNA
EH Bilduren herri batzarra Alonderon, 18:30ean. Jon Zulueta gonbidatu berezia.

16 IGANDEA
Haurrentzako zine emanaldia Arroabeko eskola zaharrean, 17:00etan.
*Artisau eta baserriar azoka Arroabea.

28 OSTIRALA
Odol ematea.

29 LARUNBATA
19:00. Aitor Huergoren kontzertua, Kultur Etxeko aretoan.

SAN MARTIN JAIK LASAON

11 ASTEARTEA
San Martin eguna. 11:00 Meza. Ondoren, auzoko jubilatuentzat hamaiketakoa.

14 OSTIRALA
20:30 Txupinazoa. Ondoren, pintxo potea, Lasaoko sagardo dastaketa eta triki bingoa.

15 LARUNBATA
13:00 Auzoko gaztetxoentzat txupinazoa eta buruhandiak. 14:00 Gaztetxoentzat bazkaria elkartearen. 16:00 Puzgarriak frontoian. 20:30 Bertso afaria, bertsolariak: Amets Arzallus eta Andoni Egaña, trikitilariak: Itzeber eta Txibiler.

AGIRO MENDI ASTEA

13 osteguna: Armenia eski zeharkaldia emanaldia, Artano anaien eskutik.

15 larunbata: Rubio-Iraolagoitia BTT zeharkaldia.

16 igandea: umeen ibilaldi neurtua.

JUBILATUEN ASTEA

24 astelehena: bingo saio berezia, 16:00etan, jubilatuen tabernan.

25 asteartea: karta jokoa egoiliarrekin, Gisasola egoitzan, 16:30ean.

27 osteguna: karta jokoa egoiliarrekin, San Juan egoitzan, 16:30ean.

28 ostirala: gaztaina eta tortilla jana, jubilatuen tabernan, 18:00etan.

29 larunbata: ibilaldia eta mokadutxoa jubilatuen tabernan, 10:00etan.

30 igandea: meza, elkartearen aurten hildako guztien alde, eta 14:00etan bazkaria jubilatuen tabernan.

ARKEOLOGIA ASTEA

25 asteartea: 19:00 Neanderthalei eta Pre-neanderthalei buruzko bi hitzaldi.

27 osteguna: 19:00 Amabiturrietako kobazuloaren inguruko saioa.

30 igandea: 11:00etatik 15:00etara hezur eta harrien erakustaldia Zestoako plazan eta udaletxe azpian.

AZAROKO AGENDA GAZTELEKUAN:

6: Itxita

7: Nerabeen bilera, Alonderon (DBH)

8: Margoketa lanak (DBH)

13: Jolas libreka (3.zikloa)

14-15: Margoketa lanak (DBH)

20: Sukaldaritza: krepak (3.zikloa)

21: Sukaldaritza:krepak (3. zikloa)

22: Margoketa lanak (DBH)

27: Olentzeroa prestatu (3.zikloa)

28: Azaroak 25 lanketa. (3. zikloa)

28: Olentzeroa prestatu (DBH)

29: Jolas libreka (DBH)

HAURRENTZAK JOLASAK, BARBANTXO AISIALDI TALDEAREKIN:

-Herrigunean HH: azaroak 12 eta 26 (17:00, gaztelekuan)

-Herrigunean LH: azaroak 14 eta 28 (17:00, gaztelekuan)

-Aizarnan: azaroak 14 eta 28 (17:00, kultur etxean)

-Iraetan: azaroak 7 eta 21 (17:00, elkartearen)

TXEPEKXA ARROABEKO AISIALDI TALDEA:

A14 eta 28. Elkargunean. HH:17:00-18:00 eta LH: 18:00-19:00.

KONTAIDAZU IPUIN BAT

Azaroak 4 eta 18
17:30ean, Liburutegian.

Taxi Zestoa



9 Eserleku
Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 906

Surya Paz Marticorena



Osteopatia - Kirol masajea

605 765 140 Portale kalea 1, Behea B - 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)



ZESTOAKO SAN JUAN FUNDATZIOA

943 147 019
sjzuzendaritza@gmail.com

Zure zentzumenak esnatu, natura besarkatu!

KIMUBAT
— GARDEN



Bizi esperientzia freskagarri eta naturala gure kosmetika naturalarekin. Azalaren eta ilearen zaintzarako produktuak, kandela eta mikado aromatikoak, etab. aurkituko dituzu gure dendan. Zure etxea bakez eta ongizatez betetzeko unea da!





Energia berriztagarrien komunitatea

- Herritarron ahalduntzea
- Energia eredu eraldatzailea
- Tokiko proiektuak
- Burujabetza energetikoruntz

Zestoako eta Iraetako proiektu fotovoltaikoek argia ikus dezaten herritarren partaidetza kanpaina abian da!

Iraetako futbol zelaitik edo Zestoako Herri Eskolatik bi kilometroko erradioan bizi bazara, parte har dezakezu

Zestoako jubilatutabernan bulegoa zabalik.
Zuzeneko arreta zerbitzua egongo da.

- Proiektuari buruzko azalpenak eman eta zalantzak argitzeko.
- Norberaren faktura eta ohituretara egokitutako proposamena egiteko.

Azaroaren 3tik 7ra bitartean (astelehenetik ostiralera), egunero: 17:30etatik 19:30tara.

Auzoetako hitzorduak

- Azaroak 11, asteartea, 19:00etan, Iraetako Gure Ordeka Elkartean
- Azaroak 12, asteazkena, 19:00etan, Arroa Goiko Herri Etxean

Bestalde, **energia fakturari buruzko tailerra** antolatu dugu azaroaren 20an, 18:00etan, Alonderoko aretoan.

Bestelako harremanak
argiola@ni.eus
642 637 618

